

UE4SD Press release, October 2014

Unibertsitate-hezitzaileen garapen profesionala Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruz

Txosten berri batek Europa osoko gabeziak eta praktika onak biltzen ditu.

2014ko otsailaren eta maiatzaren artean, Europako 33 herrialdeko goi-mailako hezkuntzako 54 erakundek goi-mailako hezkuntzako garapen jasangarrirako hezkuntzaren (GJH) “*gaur egungo egoeraren*” inguruan egin dute. Azterketa-arloak goi-mailako hezkuntzako 3.000 erakunde baino gehiago hartzen ditu barne, 24 milioi ikasle baino gehiago dauzkatenak. GJHren integrazio-egoera identifikatzeaz gain, azterketak unibertsitate-hezitzaileen GJHri buruzko garapen profesionalerako dauden aukeren inguruko esperientziarik onenak biltzen ditu, kontuan izanik unibertsitate-irakaskuntzaren kalitatea funtsezkotzat jotzen dela XXI. mendeko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak dituzten ikasleak prestatzeko.

Herrialdeen arabera azterlanen emaitzak eskualdeka analizatu ziren eta, hala, lau txosten egin ziren: Europako hegoaldea, iparraldea, ekialdea eta mendebaldea. Txosten horiek “*gaur egungo egoerari*” buruzko txostenean bildu ziren. Lehenengo emaitzak UE4SD (Unibertsitate-Hezitzaileak Garapen Jasangarrirako) proiektuaren urteko bileran aurkeztu ziren; Pragako Karlos Unibertsitateko (Txekia) Ingurumen Zentroan egin zen joan den 2014ko urriaren 2an.

Hauek dira azterlanaren emaitza nagusiak: GJHk garrantzia hartzen du Europa osoko goi-mailako hezkuntzan. UE4SD proiektuko kide diren herrialde gehienetan goi-mailako hezkuntzako jasangarritasunaren garrantzia aitortu egiten dute hezkuntza eta/edo ingurumenarekin loturiko zuzentarauetan edo legerietan. Gainera, herrialde gehienek erakusten dute haien goi-mailako hezkuntzako erakundeek jasangarritasuna eta GJH sustatzen dituzten gidak eta adierazpenak egin dituztela. Hala ere, herrialde askok onartu dute haien unibertsitate-hezitzaileen GJHri buruzko garapen profesionalerako aukerak falta direla. Herrialde batzuek soilik dauzkate programa edo errekerimenduak unibertsitate-hezitzaileek GJHri buruzko irakaskuntza-ikaskuntza gaitasunak bereganatu ditzaten. Argitalpen batek eta online baliabide-plataforma batek esperientzia horien inguruko zehaztasun gehiago jasoko dituzte.

Garapen jasangarriak Europako goi-mailako hezkuntzan duen integrazio-maila oso desberdina da testuinguru kultural eta instituzionalaren arabera. Beraz, UE4SD proiekturako erronka bat izango da “Academy” programa garatzen denean eskari desberdin horiei erantzutea; hain zuzen ere, programa horren bidez laguntza emango zaie unibertsitate-hezitzaileei GJHri buruzko gaitasunak gara ditzaten. Horrenbestez, ahalegin kolektibo bat behar da Europako goi-mailako hezkuntzaren eremuan GJHren garapen eraldatzaile bat lortzen laguntzeko.

UE4SD proiektuan interesa badaukazu edo goi-mailako hezkuntzako GJHn sartu nahi baduzu, kontsultatu www.ue4sd.eu edo www.copernicus-alliance.org, proiektu hau abian jarri zuen Garapen Jasangarrirako Goi-Mailako Hezkuntzako Europako sarea, edo jar zaitez harremanetan irakasle honekin: Prof Daniella Tilbury, Director of Sustainability, University of Gloucestershire (helbide elektronikoa: dtilbury@glos.ac.uk).

“*Gaur egungo egoerari*” buruzko txostena webgune honetan deskargatu daiteke: www.ue4sd.eu/outcomes.